

# ARKTA


ERRALDOI BASATIA



PIZTIEN ERRONKA 3

ADAM BLADE

Miren Ibarluzearen itzulpena




LAUTADA

IPARRALDEKO  
MENDIAK

MENDEBALDEKO OZEANO

BELDURRAREN  
BASOA

HAIZEAREN



IZOZTUAK



# Abantia

LAUTADA  
NAGUSIAK

LANDAK

HUGO  
ERREGAREN  
JAUREGIA

HIRIA



ERRINEL

ERREKA





*O*ngi etorri *Abantia* erresumara! *Aduro* nauzu,  
*Aduro Azti* ona; *Hugo Erregearen* jauregian bizi naiz.  
Ez zara sasoirik onenean iritsi, alajaina...

*Antzinako* idazkietan jasota dagoenez, halakoren batean  
arriskuan murgilduko omen da gure erresuma baketsua.

*Bada*, une hori iritsi da.

*Malbel Azti* ilunaren sorginkeria zitalen mendean,  
sei *Piztia* ~*Suzko herensugea*, *Itsas sierpea*, *Erraldoi*  
*basatia*, *Zaldi-gizona*, *Elurretako munstroa* eta *Sugar-*  
*-hegaztia*~ amorratuko omen dira, eta piztiek suntsitu  
egingo omen dute lehenago babesten zuten lurraldea.

*Abantia* arrisku bizian dago.

*Baina*, antzinako idazkietan heroi baten berri ere ematen  
da. *Bertan* idatzitakoaren arabera, mutiko batek *Piztiak*  
madarikaziotik libratzeko erronkari ekingo dio, gure  
erresuma gaitzetik atera dadin.


Ez dakigu mutiko hori nor den; baina, heldu da haren unea...

Gure eroi gazteak izango al du erronkari aurre egiteko  
beste adore eta bihotz! Gurekin bat egin eta zer gertatuko  
den jakin nahi duzu?

*Abantiak* agur egiten dizu,

*Aduro*

## SARRERA



Gurdi-karabanak geldiro egiten zuen aurrera mendi garaietako bidean. Bideko malda areagotu ahala, indartsuago bultzatu behar zuten zaldiek; gurdiak jatekoz eta merkantziaz beteta zeramatzen mendi garaietako merkataritza-herrira.

—Noiz helduko gara? —galdetu zuen artega lehenengo gurdian zihoan mutikoak.

Aitak bide estu aldapatsuan aurrera begiratu zuen; bidea mendian desagertzen zen. Bide arriskutsua zen hura: zuhaitzek

inguratua, harriak zituena han-hemen, luiziak egon izan balira legez.

—Izan pazientzia, Jack —esan zion aitak—. Pasabidera iritsi eta laster izango gara bertan —han urrunean zegoen bihurgunea seinalatuz.

Jackek harantz begiratu zuen. Bihurgunearen gainetik hodei ilunak zetozen, mendian itzal eginez. Airearen hozten hasi zen eguzkia hodei atzean gorde zenean.

Gurdiek bideko bihurguneari ekin zietenean, mendi-haize bortitz batek jo zituen. Mutikoak dardara egin eta jaka estuago bildu zuen.

—Laster ibili behar dugu ekaitzak harrapatzea nahi ez badugu —dei egin zion Jacken aitak beste merkatari bati, ahotsa haizean galtzen zitzaiolarik.

—Hobe dugu, bai, hemen harrapatuta ez geratzea: hotzez hilko ginateke.

Aurrera ekin zioten. Baina, haizeak indarra hartu zuen, zuhaitz artean pasatzean

txistuka zebilen. Bat-batean burrunba beldurgarri bat entzun zen bailara osoan. Lurra dardaraka hasi zen. Gurdiak geratu zituzten. Merkatariak elkarri begiratu zioten, gertatzen ari zena ezin ulertuta.

—Zer da hori? —esan zuen batek.

Oihartzun handiko soinu bat entzun zuten brastakoan, bai eta erdibitzen hasitako zuhaitz baten krakada ere.

—Zer ari da gertatzen? —galdetu zuen Jackek, ahotsean nabari-nabari zitzaion ikara ostendu nahian.

Aitak bihurturantz begiratu zuen.

—Ez dakit, seme —erantzun zion aitak.

Lehenengoz ikusi zuen Jackek beldurra aitaren begietan, eta dardarak nabaritu zituen bizkarrezurrean.

Lurrak indar handiz egiten zuen orain dardara, hainbeste ezen zaila baitzen gurdietatik ez erortzea. Zaldiek hankak gora eramane zituzten, euren penetatik ihes egin nahian bezala. Gurdietako bat irristatu egin



zen: mendiko bidean atzeraka hasi zen, barruan zeramatzan merkantziak han-hemen barreiatuta. Gizonak bide ertzera erori ziren, eta, haien gainera kupelak. Jarraian, gurdien aurrean, haitz izugarriak erori ziren zuhaitz artetik, eta bide estuan txiki-txiki egin ziren. Zorionez, ez zituen Jack eta aita harrapatu.

Baina, aurrerako bidea itxita zegoen!

